

# [b]

## BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

598. zkia.

XV. urtea

2007ko urtarrilaren 19a



Alde Zaharreko zenbait etxetan termitak daude

# Intsektu txikia, baina arazo handia

## UDAL EUSKALTEGIAK

Euskara ikasteko biderik gertukoena, erosoena eta errazena  
*La manera más fácil, cómoda y cercana de aprender euskera*

**etxean bezala  
como en casa**

25 urte  
47 zentzu  
Bela horietan  
Horietan pertsonak ez dira  
Pekak: **0** / **0** / **0**  
Aholkariak



Dirutze López Elgorrieta, Oscar Tena Oñativia, Leireño Victoria Galarraga,  
Juan Andrés Rodríguez (Apezkita), Miren Carmen Barrio (Pizka), José Velázquez (Lagunak), Jessica Etxebarria (Etxebarria)

## EUSKARA IKASTAROAK

**Euskalduntze maila guztiak. Alfabetatzea.  
EGA. Hizkuntz Eskakizunak.**

### IRAUPENA

Otsaila-Ekaina

### IKASTARO BEREZIAK

Aisa: etorkinentzako ikastaroa

### MATRIKULALDIA

Urtarrilaren 8tik otsailaren 2ra



**UDAL  
EUSKALTEGIAK**

**DEBABE** Udal Euskaltegien Mankomunitatea  
Nafarroa Enparantza 2 · ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 27 31  
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net  
Ordutegia: 9:00-13:00 / 15:30-18:30

**matrikula  
zabalik**

[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

**matricula  
abierta**



**%20** rainoko  
**deskontuak**  
**ehunetan**

Erakusketa aldatzeagatik  
**%30** erainoko  
**deskontuak**  
**koltxoietan**

Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

**LAGUNAK**

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

**24** hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



ALAITZ VIVES

Lurralde hezean bizi ginela eta gu pozik, besteen "agua para todos" garrasiei gor. 1988-90 bitartean jasandako lehortearen ostean zerbait ikasi genuelakoan eta hara, sorpresaz azterketa jarri ez digute ba!

Ulibarriko urtegiak 1989 urtean zuen ur maila bera du; gutxitxo, beraz. Hortaz, badirudi garai hartako egoera berera hurbiltzen ari garela, guk uste baino lehenago. Gauzak horrela, eta albistearen garrantziaz jabetuta, ingurura begira nabil, galdera egin nahi ezta edo; ez ginen ba lehorte hartatik ezer ikasi gabe aterako ezta?

Hala ere, datu baikor bat behintzat aurkitu dut. Orduan baino %25 ur gutxiago kontsumitzen dugu orain. Aldiz, Erkidegoko zenbait gunetan urtegitik hirirako bidean uraren %30 galtzen dugu edota %12 beste zenbaitetan, kaleak ur edangarriarekin garbitzen dira, zenbait iturri apaingarririk ura etengabe hartzen dute...

Gaia zehatz ezagutzen duenak esango dit, ez dela egia, neurriak hartu-hartu direla. Ur eskasia dagoenean ibaitik zuzenean ura hartu ahal izateko sistemak gauzatu direla...

Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula izango baina niri gutxitxo iruditzen zait. Komunean bera eraman beharrekoak eramateko luxuzko ura darabilgu, berdin lorategiak ureztatzen.

Aditu ezagun batek dio uraren kultura ura bera baino eskasagoa dela gurean. Zurekin ados, Antiguedad jauna.

## ZOZOAK BELEARI...



ALAIN ULAZIA

«Lurralde hezean bizi ginela eta gu pozik»

ALAITZ

«Uraren gaian gure sudurretik harago deus ez dugu ikusten»

ALAIN

Zientzia Inutilen buletin ofiziala irakurtzen ari naizela harrapatu nauzu uraren eskasiaren kontuarekin. Hor daude, buletinean, makina bat badaezpadako zientzia dibertigarri, nasologia adibidez, sudurren ikerketan diharduen zientzia. Edota Borgezen fabula batean oinarrituriko piztia fantastikoen zientzia, zoologia fantastikoa, adibidez unikomioaren kasu zaldi-gizatiarra aztertzen duena. Blasfemologia, irainak aztertzen dituena. Buletinean dago baita Fukuyamaren historiaren amaieraren teoria ere: sistema politiko arrazionalago eta onuragarriago bat aurkitzeko gizateriaren esperantza desagertua da sozialismo marxistaren porrotarekin, kapitalismorik liberalenak garaitu du.

Nasologiatik ondoriozta dezakegu uraren gaian ere geure sudur puntatik harago deus ez dugula ikusten. Zoologia fantastikoaren argipean galde dezakegu ea zein animaliak edango duen ura Nafarroako Ebro ibarrean hegoaldeko golf zelaiak ureztatzen honen trasbasea gauzatutakoan, edota zelan eboluzionatuko duten Murtziako espageti westernetako kaktusek hainbeste urekin, botanika fantastikorantz. A ze iraina naturari, blasfemologiaren aztergai.

Gizateriaren historiaren amaieraren seinaleak ote? Klimatologia ikusiz, Andoni Aizpuru eta Pello Zabala ere zientzialari inutilak ote?



GIZAKIEK SENTIMENDUAK ETA JOKABIDEAK EUREN INTERESAK  
ALDATZEN DIREN HEIN BEREAN ALDATZEN DITUZTE



Arthur Schopenhauer

## MA. udaltzainari

Abenduaren 16 gauean, larunbata, udaltzain honen jarrera tamalgarria izan zen. Lagun koadrila gindoazen Madalako parketik gorantz eta zabor kontaineren parean auto bat gruaz eramateko prestatzen ari ziren udaltzainak. Ondo iruditu zitzaigun autoa aparkatu ezin daitekeen lekuan baitzegoen aparkaturik eta zaborraren kamioiak ezin zuen bere lana egin. Santa Klara auzora joateko gonbitea luzatu genien udaltzainei (jakinekoa da auzo horretako arazoa aparkaleku faltagatik). Gure hitz testualak "gero Santa Klarara" izan ziren. M.A. udaltzaina suturik deabruaren menpe balego bezala etorri zitzaigun lekuz kanpoko komportamendu negargarriaz. Ea nun egiten genuen lan galdetzen, seguruenik gure lanean onenak izango gine-la esanez eta beraiek bakean uzteko... Ulertzen dugu larunbat gauetan udaltzain izatea ez dela erraza izango, mota guztietako jendearekin topo egingo dutela eta nazkatu egongo direla, baina hortik gurekiko izan zuen komportamendura... Jakin beharko zenuke M.A. larunbat gauetan denetik aurkituko duzula eta zure lanpostuaren zati bat dela, errata baldin bazaude ezin duzu zure haserrea edozeinekin ordaindu eta gutxiago inongo kulparik ez dugun herritarrokin. Gu zure lankide batekin hitzegiten geunden bitartean guregana zuzentzen zinen, lau tontokeri esan eta alde egiten zenuen, eta hortik minutu batera berriro errepikatzen zenuen jarrera hori, eta minutu batera berriro eta berriro... pertsona

zibilizatuek mintzamenen dugu ahalbidetako arazoak eta gaizki ulertzeak konpontzeko eta zure lankidearekin horretan ari ginen, baina zuk ez zenuen hori ikusi nahi eta zeurean jarraitzen zenuen. M.A., hitz egiten duenak entzuten jakin behar du. Ez dugu inor auzitu nahi, ez gara inor hori egiteko, baina momentu puntual horretan Elgoibarko udaltzain baten jarrera tamalgarria salatu nahi dugu berriro errepika ez dadin. Eta bukatzeko, gure ustez herri guztietako udaltzainek exemplua eman behar lukete (ez dugu esan nahi herritarrok ez dugula eman behar, noski baietz!), baina isunak ipintzen dituzten leku berean beraien auto partikularrak aparkatzea eta ezer ez gertatzea gehiegikeria iruditzen zaigu, ez da etikoa... ala inmunitatea dute?

AXIER GARATE ASTIGARRAGA

## 2007ko Juan Muguerza Krosaren esker ona

Idatzi honen bidez, Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren LXIV. edizioa antolatu duen batzordeak, eskerak eman nahi dizkie, nola edo hala, euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien esku-baltsunari esker, berebiziko arrakasta

izan zuen 2007ko urtarrilaren 14an egin zen krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzerako orduan emandako laguntzagatik, eta bestetik, gure herrira krosean parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harrera bero eta adeitsuagatik.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko herriaren izena, aste betez, mundu osoko kirolaren ikuspuntuan egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira.

Krosa herriarena da, eta herriak maintatzen jarraituko duela espero dugu. Edizio honetan ere Gipuzkoako krosik onena izan gara; eta antolaketari eta kirol arloari dagokionean, estatuko hobere-tarikoa.

Hortaz, lanean jarraituko dugu, datorren urtea ere, aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Horrela bada, Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2008ko urtarilean. Mila esker.

MINTXETA A.T.

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitza ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]

barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitate: 943 74 37 04 • E-posta: [barrenpubli@elgoibarkoizarra.com](mailto:barrenpubli@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe KE, Urruzuno **INPRIMATEGIA** Gertu **TRADA** 4.570 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



## KEXAK

- **Eulogio Estartaren bustoa oso egoera txarrean dago:** "Sigma auzoan dagoen Eulogio Estarta Landaren bustoa ez du inork zaintzen. Gizon honek gure herriaren alde lan handia egin zuen, eta orain, bere irudia zaintzea tokatzen zaigu. Bustoa eta bere ingurunea oso egoera txarrean daude. Udalarari honelako detailak zaintzeko eskatuko nioke".



- **Sigma auzotik errepidera ateratzea oso arriskutsua da:** "Udalak Sigma auzoa ahaztuta daukala dirudi. Jende asko bizi da auzo honetan eta urruti dagoenez, kotxea hartzen dugu herrira jaisteko. Auzoko irteera oso arriskutsua da, bai Eibar aldera eta baita Elgoibar aldera ere. Ingurune horretan autoak abiadura handian ibiltzen dira eta oso zaila da errepidera ateratzea. Badakigu irtenbidea ez dela erreza, baina hirigintzatik zerbait pent-satu beharko lukete. Ez dakit nola ez den istripu gehiago egoten! Egunen batean istripu potoloren bat gertatuko da, seguru".

- **Kiroldegitik Basartera doan kalean, auto mordoa egoten da gaizki aparkatuta:** "San Roke kale berrian autoak espaloiraino sartuta aparkatzen ditu jendeak, eta askotan ez da oinez joateko lekurik egoten. Kale honetan, momentuz behintzat, ez dago aparkaleku arazorik, beraz, jendea autoa ondo aparkatzeko eskatuko nioke".



## TXALOAK

- **Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak euren kolaboratzaile guztiak eskertu nahi ditu:** "2006an 766 odol pote eman dizkiogu Donostiako odol bankuari. Gure ekimenean aurrera egiten laguntzen diguzuen herritar guztioi, eskerrik asko. Aipamen berezia egin nahi diegu babesleei: Udala, postetxeko langileak, Ibar Txiki ardoak, Julio Bueno, Eroski, Altolako urak, Txankakua, Euskadiko Kutxa eta prentsa. Azkenik, herriko gazteei dei berezia egin nahi diegu, odol emaile egin daitezen".

- **Ikastolako Txoznako Batzordeak herritar guztiak eskertu nahi ditu:** "Ikastolako Gabon Zaharrek Txoznako Batzordeak eskerrik eman nahi dizkizue zuen lanarekin eta laguntzarekin txoznan parte hartu zenuten guztiei. Bertara hurbildu eta izan genuen arrakasta lortzen lagundu zeniguten guztiei ere, gure eskerrik beroenak. Datoren urtean ere horrela izango den itxaropenarekin agurtzen zaituztegu!".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: [baren@elgoibarkoizarra.com](mailto:baren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Saileko zuzendaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundia





URRUZUNOREN  
*Luma*

*Lasterketa*

Iritsi zen lasterketa eguna. Beretzat ospea eta loria eskuratze-ko eguna zen, bera baitzen irabazteko faborittoa. Baina lasterketan zehar ez zen batere eroso korrika aritu; zangoak beruna bezain astunak sentitu zituen eta aurkariak nola urrutiratzen ziren ikusi zuen. Azkenean, helmugan, ez zen ezta lehenengo hamarren artean ere sailkatu. A zer nolako kolpea. Etsita zegoen. Hainbeste entrenamendu saio hain emaitza urria lortzeko. Dena pikutara bidaltzeko gogoa zeukan. Baina, dutxatu ostean, korrikalari apal batekin egin zuen topo. Beti bere atzetik sailkatzen zen korrikalari umil hura, pozez ezin kabiturik zegoen bera (faborittoa) gainditzea lortu zuelako. Pertsona hura beretzat etsenplu bat zela ohartu zen. Apaltasun lezioa irakatsi zion eta zera erabaki zuen: hurrengo astean entrenatzera joango zela, hasierako ilusio berberarekin.

*Jon Eugi*

[ ZORTZIKO TXIKIAN ]



**M<sup>a</sup> ANGELES GABILONDO**

M&G  
BURDINDENDAKOA

**Nongo giltzaren kopia egingo zenuke gustura?**

Euskal Herrirako eta munduko bakea lortzeko giltza kopiatuko nuke gustura.

**Etxe batean falta ezin den erreminta?**

Zartagina.

**"Bricomania" bezalako programek animatzen al dute jendea txapuzatxoak egitera?**

Bai, gero eta jende gehiagok egiten ditu txapuzatxoak etxean. Niri izugarri gustatzen zait.

**Ba al dago dena pegatzen duen pegamenturik?**

Bai, pegamentu oso onak daude gaur egun.

**Zenbat aldiz harrapatu duzu hatzaparra mailuarekin?**

Hatzaparra akaso ez, baina duela gutxi, kajoi bat erori zit-zaidan hankara eta azazkala beltz-beltz daukat.

**Elgoibarko zein txokok behar du berrikuntza bat?**

Herriko kaleek. Zabalagoak egingo nituzke, espaloiarekin eta aparkatzeko leku gehiagorekin.

**Gizarteko zein ezbehar moztuko zenuke artaziekin?**

Munduko gerra guztiak moztuko nituzke betirako.

**Zein da dendan daukazun produkturik arraroena?**

Gozogintzarako sopelea. Karameloa egin eta gratinatzeko balio du.

**Bete al duzu Albisteak e-postaz jasotzeko fitxa?**



Di-da batean egingo duzu eta bi notizia jasoko dituzu egunero.



**www.elgoiBARREN.net**

Elgoibarko berrizateko beste modu bat.



## [ AKORDATZEN NAIZ ]



### ANTONIO BERASALUZE

1932an jaioa

#### «Situs inversus III»

**S**itus inversus izatian arazua da, jendiak ez dakixala mareatzen banaiz reanimaziva eskumako aldiak ein bihar diala. Oin situs inversus-en karneta dakat, eta lepoko katiak ere ipintzen du.

Odola ere espeziala dakat; AB negatibo. Espeziala naiz. Oso gutxi gaude, España guztian igual 6 bakarrik egongo gera. Zer nintzan entzun nabanian sustauta geratu nintzan, baina ez dot inungo arazo larririk eduki. Medikuek ere jakin egin bihar debe, bestela...

Behin gaiztokeixa bat egin naban: elektrokardiogramia eittera juan nintzan eta ez nion medikuari ezer esan. Kable danak ezkerreko aldiak ipini zizkidan eta eman zion botoiari. Ez zaban ondo egitten makiniak, zeozer gaizki ematen zion. Hiru edo lau aldiak egin zaban aprobia. Azkenian esan egin nion situs inversus nintzala eta kabliak lekuz aldatzeko. Ez zaban sekula holakorik entzun. Pisu ederra kendu nion medikuari, nere bihotza geratuta zaguala pentsatzen hasitta zagu.

Ni gainera, donantia naiz, odola-



na eta organuena, baina nere modukeri bakarrik eman ahal diuet. Nik zeozer bihar badot, gauzia konplikaua da, jende normalan organuek ez diabe balixo.

Seme-alabak ere eduki genitun, baina eurak normal zeuden. Honen esplikaziva emateko, esan zien ama haurdun dauala, lehenengo hiru hilabetietan disgusto handiren bat eukitzen badau, umia gaizki formau leikela.

Nere amak haurdun zauala ez zaxikixan ondiokan, hilabete batekua zauan, eta nere aitxa hil egin zan. De-repentian izan zan gainera, gaixotu eta 8 egunera, ez zebeu espero, eta disgusto haren ondorixua izan leike nere asuntua.

## [ GURE BERBAK ]

### Konparaziozko esaldixak (2)

Aurreko astian -en eta -ko aldiak egitturia dauken esaldixak ekarri genduzen hona (Eibartarrak graziosuago egoten dituk hizketan Plazentziakuen aldiak).

Gaurkuan antzeko bat ekarriko dogu: *Al-dia dago A-tik B-ra*. Hona adibide pare bat:

- Bai, diperente egitten dogu. Eske aldiak dago, Elgoibartik Azkoittira. Eibartik Elgoibarrera ere bai.
- Gure sasotiek honera, berritz, alde haundixa dago.

BEZELA eta MODUAN ere erabiltzen dira konparaziozko esaldixak egitteko, bixak:

- Holaxe, ba; orduan ez zan oiÖ bezela, telebisiviak eta gauzak eta ikusteko.
- Orduan kaletarrak basarritarra ostikua jo ta txakurra bezela bialtzen juen.
- Basarrixan ez zara hasiko kalian moduan, ya bostak dituk edo bost f'erdia, eta lanari laga.
- Jo zaban kaÖabera eskiÖiak emakumia, eta txala moruan lurrera!
- Danok orduan editten genduan lana astuak modura.
- Eta brometan moduan esan nion: "Äo, ez da merkia".

Jesus Mari Makazaga



### ESKERTZA

2007ko urtarrilaren 16an hil zen **Maria A stigarraga A zpiazuren** sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ALDE ZAHARREKO ZENBAIT ETXEBIZITZETAN TERMITAK DAUDE

## TERMITAK: EGUR USAINERA ETORRI DIREN BISITARIAK

*Termiten eraso delata-eta, Errosario, Foruen Enparantza eta San Bartolome kaleetan kaltetuak izan diren etxebizitzetako zenbait bizilagunek beren bizitokien egoera zein den jakin nahi izan dute eta horretarako egur kontuetan aditua den, Iban Sabalza biologoarengana jo zuten. Ibanek egur ikuskapen, azterketa, peritazio eta aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dituen Xilokonsult enpresan lanean dihardu eta gertutik aztertu du Elgoibarko termiten arazoa. Bide batez, gai honen nondik norakoak azaldu dizkigu.*

### TERMITAK ELGOIBARREN


Euskal Herriko eta oro har, penintsula-ko herrien %90ak, termitak eragindako arazoak jasaten dituzte. Denbora luze termiten arazoa gutxietsia egon da, batik batik, ezjakintasuna medio eta aldi berean, diagnosi zehatza egingo zuen espezialistarik ez delako egon. Maiz, termitak pipiak izango bailiran tratatuak izan dira. Termitak asko ugaldtu eta zabaldu dira, bereziki, herrietako alde zaharretan, hala nola, egurrezko egiturak, ur instalazio zaharkituak eta pisu hutsak daudelako aipaturiko guneetan.

Elgoibarren ere, azken urteetan, termitak agertu dira, Santa Ana, Errosario eta San Bartolome kaleetan. Baita, Kultur Etxe-

an ere. "Nik estreineko lanak Elgoibarren, duela 10 urte burutu nituen, baina, udal-letxeak badu lehenagoko konstantziarik ere" azaldu digu Ibanek. Azkenengo hila-bete hauetan, Errosario, Foruen Enparantza eta San Bartolome kaleetan burutu dituzte ikerketak, hemengo bizilagunek aldeaz aurretik horrela eskatuta. Elgoibarko etxebizitzetan buruturiko azterketaren ildotik, Ibanek ondorio nagusi honetara iritsi direla jakinarazi digu: "Elgoibarren aztertutako etxeak ez daude egoera larrian. Hala ere, neurriak hartu ezean, ziurrenik kalteak egongo dira, eraso aktiboak baitira, hau da, kalteak egungo etxebizitzetan ezezik, ondoko etxeetara ere hedatzeko aukera dago".


### TERMITEN AGERPENEA ETA HEDAPENA

Zenbait baldintzek termiten agerpena faboratzen dute: etxebizitzetako ur jariok, ingururen garbitasunak, instalakuntzen mantenimendu faltak, hezetasunak, komun instalazioek, berogailuak, egurrak, horma amankomunak, pinuen landaketa masiboak basoetan, besteak beste. Horrela, termitak berez dute hedatzeko erraztasun eta azkartasunak bultzatuta, urtero kolonia bakoitzeko kideek hegoak sortu eta hegan egiten dute aldameneko etxeetara. Egurrezko egituretan, oholzetan (farima), zokaloetan, markoetan aurki ditza-kegu termitak. Egurra bilatzeko ahalegin horretan, homarik gogorrenak ere, zeharkatzeko gai dira, hormigoia bame.





## TERMITEN DEFINIZIOA



Termitak intsektu xilofagoak dira, pipiak bezalaxe, egurra eta zelulosa duten elementuak jaten dituzte, bai basoetan (beren habitat naturalean) eta tamalez, baita gure etxebizitzetan ere. Erle eta inurrien antzera, kasta desberdinez osaturiko koloniak eratzen dituzte. Gaur egun munduan, 2.600 in-guru termita desberdin daude eta Mesozoiko garaikoak dira. Azkenengo 50 urteotan, termitak basoetatik herrietara hurbil-

du dira, gure bizilekuetako babesak eta egurrak erakaririk. Gizakiarentzat termita guztiak ez dira kaltegarriak; soilik, 150 termita espezie baino ez. Gainera, intsektu hauek beharrezkoak dira basoetan ekosistemaren oreka mantentzeko. Espainiar estatuan, 3 termita genero atzeman dira. Euskal Herrian, egun, Reticulitermes izeneko lur azpiko termita dugu generorik arriskutsuena.



### TERMITEN AURKA EGITEKO HARTUKO DIREN NEURRIAK

Aztertutako etxeetan proposatutako tratamendua, termiten aurkako amu berezi batzuk erabiltzean datza. Zelulosazko pasta edo orean, kitina sortzea eragozten duen substantziari esker, aktibo honek termiten koloniek bukatzen du. Ore hau, kutxa berezi batzuetan sartu eta etxeen inguruan eta bornean banatzen da. Sistema hau ez da kutsakorra, ezta arriskutsua ere. Aztertutako etxeetan planteatu dena, etxe bakoitzaren kokapen, inguru, eraso, egitura eta inguruneke ezaugarriei egokitzen zaion tratamendu berezi bat ezartzea izan da.

### KALTETUTAKO BIZILAGUNEN JARRERA

Kaltetutako etxebizitzetako bizilagunek, Udalaren parte hartzea eskatzen dute tratamenduaren aurrekontuei aurre egi-

teko, termitak, "izurrite-urbano" bat direla argudiatuz. Honen aurrean eta Xilokonsult aholkularitza agentzietatik udaletxeari aztertutako etxebizitzaren egoeraren eta proposatutako tratamendua zein diren agertu ondoren, udaletxeak oraindik ez du definitu termiten erasoak kudeatzeko prozedurarik eta oraingoan, bizilagunek egin beharko diote aurre arazoari. Aitzitik, udaletxeak termiten erasoak izan ditzaketen kale eta inguruak aztertzeko memoriaren aurrekontu bat eskatu die.

**«Elgoibarren  
aztertutako etxeak  
ez daude egoera  
larrian»**

### NOLA SAHIESTU TERMITEN AGERPENA

Ez da erraza termitak etxean ditugula hautematea. Batzuetan, ordea, arrasto ezaugarriak azaleratzen dira, esaterako, lur puntu eta lur galeriak horma eta sabaietan, beste batzuetan, berriz, hego pilaketak lehio ondoetan, egur hondatua... Bestalde, berrikuntza bat egiten denean, eta sapaia irekitzen direnean, gomendagarria da aditu baten azterketa.

Termiten agerpena sahisteko berriz, "etxebizitza osoaren ur instalakuntzak, (bamekaldekoak, teilatu kanpokoak zein balkoi edo terrazetakoak) egoki mantendu behar dira, egurra busti ez dadin, termitek gehienbat egurra hezetan egoera batean gogoko baitute. Hutsik dauden etxe eta lokalen gutxieneko garbiketa eta mantenimendu bat burutzea ere, beharrezkoa da".

## [ PROTAGONISTA ]



Egoitz **Mora**

Egoitz Morak Espainiako Judo txapelketan hartuko du parte bihar, Malagan. Egoitzek 90 kiloz azpiko beste 16 judoken aurka lehiatu beharko du. Jakinarazi digunez, txapelketa honetan dena emango duen arren, hilaren hasieran Erreterian jokatutako sektore txapelketan sufritu zuen sorbaldako lesioak bere jokoa eta emaitzean eragin dezake. Hala ere, sasoi onean dagoela erakutsi zuen Erreterian, 3 judoka handi mendean hartuz, txapelketako aurreneko postua eskuratu baitzuen. Egoitzen hitzetan, biharko aurkaririk gogorrena, David Alarza madrildarra izango da.

## [ NOTIZIA ]

### Lerun Txiki-Mortierkan industrigune berria egitea onartu du Osoko Bilkurak

**O**soko Bilkurak Lerun Txiki-Mortierkan saileko arau subsidiarioak aldatzea onartu zuen, PSE-EE alderdi politikoaren abstentzioarekin eta gaitzuzko alderdien aldeko botoarekin. Arau subsidiarioen aldatzea honekin, industri-lur bilakatuko da Lerun Txiki-Mortierka ingurua, eta industrigune berria eraikiko da bertan. 71.128m<sup>2</sup> izango ditu industrigune berri honek, eta horren erdia, pabiloi industrialak eraikitzeko erabiliko da.

#### PSE-EEren abstentzioa

Ovidio Campello PSE-EEko zinegotziak bere alderdiaren abstentzioa azaltzeko argumentuak eman zituen. Batetik, okupa moduan bizi diren gazte batzuen egoeraz galdetu zuen, eta bestalde, bertako base-



rri batean bizi den familiari irtenbide bat emateko eskatu zuen, izan ere, "familia honek ez zekien baserri hau industri-lur gainean zegoela". Hirigintzako arduradunak esan zuenez, "1992tik lur hau industrialala da", eta "etxe bat erostean, zein egoeratan dagoen jakin behar da", gaineratu zuen alkateak.

## [ ZENBAKIA ]

# 393

Elgoibarren 393 atzerritar bizi dira gaur egun, hau da, biztanleria osoaren %3,6a. Azken bost urteotan, 14tik 393ra hazi da atzerritarren kopurua. Guztira 34 herrialde desberdinetako jendea bizi da herrian. Boliviarrak (91) eta portugaldarrak (73) dira multzo jendetsuenak.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Haika-Segi epaiketako auzia salatze-ko helburuarekin, A8 autopista orduerdiz moztu zuten 5 gaztek Zarautz inguruan, joan zen zapatuan. Tartean, Aina-Ladron elgoibartarra zegoen. "Desorden publikoa" eragotzita, bost gazteak atxilotu zituen Ertzaintzak. Besoak bidoietan sartuta eseri ziren errepidean bost gazteak; bidoia eta pertsona tartekatuz. Errepide gaineko zubian gazte multzo handi bat elkartu zen gazteen elkartze-ko eskubidea aldarrikatuz eta Ertzainen kontrako garrasiak eginez. Zazpi ordu beranduago askatu zituzten gazteak Ikerketa Espainiako Auzientzia Nazionalaren esku dago.

## Tradiziozko Ogibideen Jardunaldia izan zen IMHn San Anton Egunean



**M**akina Erremintaren Museoa ireki zituen San Anton Egunean. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara, Tradiziozko Ogibideen Jardunaldiak egon ziren ikusgai, hau da, XX. mende hasieran ekoiztutako makinekin egindako lanak, armagintzako artisautzak, erremintariak... Lan hauetan adituak eta arituak diren pertsonak ekarri zituzten, ogibide hauek hobeto ezagutzeko.

### San Anton egunean kaleak hutsik

Jai eguna herritik kanpora joateko aprobetxatu zuen jende gehienak, baina

herrian gelditu zirentzat, zenbait ekitaldi antolatu ziren. Animalien zaindaria omentzeko, Meza Nagusia egon zen 11:00etan. Bertan, Parrokiako abesbatzak kantatu zuen eta Jon Loiola apaiz elgoibartarra lanean ikusteko aukera izan genuen. Ondoren, umeentzako haur parkea jarri zuten Plaza Handian eta eguerdiko 12:30ean Ertzantzaren Bandak kontzertua eskaini zuen Herriko Antzokian. Asteburura begira, "Ama quiero ser lehendakari" antzerkia izango da gaur gauean, eta bihar eguerdian erraldoi eta buruhandien kalejira izango da.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Autodeterminazioaren aldeko zozketa

Urtero bezala, Gabon Zahar Eguneko Ferian egin zen autodeterminazioaren aldeko zozketa. 2.397 zenbakiarekin, Aitor Urain izan zen mariskadaren irabazlea. Zorionak!



### Gizon bat hilda kotxeak harrapatuta

J.C.C. 70 urteko elgoibartarra hil zen asteazken eguerdian kotxe batek harrapatuta. Ermuaranbide kalean izan zen istripua, aroztegi parean. Lekuko en arabera, errepidea gurutzatzen ari zela, Peugeot markako monobolumen batek harrapatu zuen. Anbulantzia berehala iritsi zen arren, ezin izan zuten gauza handirik egin bere biziaren alde. Mendaroko Ospitalera eraman zuten, baina kolpeak eragin zizkion zaurien ondorioz, hil egin zen.

### Bai ala Ez lehiaketa

Hilabete honetan Arantzazu Aldazabal izan da BARREneko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Gabi jabetxean bi laguntzako afaria irabazi du. Hurrengoan, Zumaiaiko Zelai Talasoterapia hotolean bi laguntzako zirikitoa zozketatuko dugu.



## Trinitateetako Tanborradako Batzordeak Azpeitiko tanborradaren 50. urteurren akitaldian parte hartu du



Trinitateetako tanborradako 12 lagun Azpeitin izan ziren joan zen zapatuan, Azpeitiko Tanborradaren 50. urteurreneko ospakizun ekitaldian. Azpeitiko tanborradak urrezko ezteiak bete ditu aurten, eta hori ospatzeko, Gipuzkoako herri desberdinetako tanborradak gonbidatu zituen. Izarraitz frontoian egin zen ekitaldia, eta 37 herri desberdinetako tanborradek hartu zuten parte. Donostiako martxa, Txokolo eta beste zenbait pieza jo zituzten. Bukatzeko, afaria egin zuten Kiruri jabetxean.

# Inkesta

Doako OTA jarriko dute Plaza Txiki inguruan, aparkatzeko denbora mugatzeko.

## Zer iruditzen zaizu Plaza Txiki inguruan aparkatzeko denbora mugatzea?

**MAIALEN LIZARAZU**

Okina  
39 urte



“Bertan bizi garenontzat erraztasunak baldin badaude, ondo iruditzen zait. Modu honetan, jendeak ez du kotxea goiz guztian bertan lagako.”

**SANDRA HERRERA**

Etxekoandrea  
28 urte



“Doakoa den bitartean, ondo ikusten dut. Aparkaleku arazo handia dago herrian, eta sistema honekin mugimendu gehiago egongo dela uste dut.”

**ELENA SOTO**

Etxekoandrea  
42 urte



“Ez dago gaizki. Herri askotan dago OTA eta ondo funtzionatzen du. Herrian aparkatzea oso zaila da. Sistema honekin denok irabaziko dugula uste dut.”

**JAVI QUINTANO**

Komertziala  
30 urte



“Ondo iruditzen zait. Ingurune hau beti kotxez gainezka egoten da eta sistema honekin jendea kotxea kentzera behartuta dago. Leku gehiago egongo da.”

## [ BAI ala EZ? ]

Ba al daukazu merkealdietan erosteko ohiturarik?

**BAI %81**

“Bai. Beti joaten naiz merkealdietara. Dagoena begiratu, eta gustuko zerbait ikusten badut erosi egiten dut. Askotan kapritxoa izaten da, beharra baino gehiago.”

**EZ %19**

“Ez. Behar ditudan momentuan erosten ditut gauzak, ez daukat merkealdien zain egoteko ohiturarik. Gainera, merkealdietan jantzien kalitatea txarragoa izaten da.”

Datorren asterako.... **Azken urteotako negurik epelena daukagu aurten.**  
**Faltan botatzen al duzu elurra?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia  
**Zelai**  
Z U M A I A

Hilabete honetan  
2 pertsonentzako zirkuito  
bat zozketatuko dugu  
**Zumaiako Zelai Talasoterapian.**  
Zenbat eta erantzun gehiago,  
aukera gehiago!

[www.talasozelai.com](http://www.talasozelai.com)

## ON informatika-REN ESKUTIK

### SOFTWARE ASKEAREN ETA ITXIAREN ABANTAILAK

Ondorengo lerroetan software askea eta itxiaren gainean baliagarri izan daitekeen ikuspegi bat azaldu nahi genuke, gero norberak erabaki dezan kasu bakoitzean zein software mota erabili. Horretarako, bakoitzaren zenbait abantaila emango dizkizuegu:

#### SOFTWARE ASKEA

**Merkeagoa:** Enpresa txiki askok ez dute baliabide nahikorik izaten beraien behar informatikoak asetzeko.

**Erabilpen askatasuna:** Nahi beste orde-nagailutan instalatu daiteke prezio berean.

**Independentzia teknologikoa:** Software-aren garapena asko errazten da.

**Kompetentzia libreagoa:** Euskarri lanak eskaintzen dituzten enpresek ez daukate softwarearen sortzailearekiko desabantailarik.



**Epe luzerako euskarria:** Software itxiaren egileek beraien produktuak zaharkitzea erabakitzen dute urte batzuen buruan, berriago batzuk saldu ahal izateko.

**Formatu estandarrak:** Sistemen arteko elkarlana errazten dute.

**Sistema seguruagoak:** Segurtasun enpresek software askea ikertu dezakete segurtasun akatsak topatzeko.

**Akatsen zuzenketa azkarragoa:** Zuzentzeko ahalmena, garatzaileak ez bakarrik, erabiltzaileek ere daukatenez, zuzenketa lehenago eta hobeto egin ohi dira.

**Zabaltzen ari den sistema:** Eremu askotan software itxia baino gehiago erabiltzen da dagoeneko.

#### SOFTWARE ITXIA

**Softwarearen jabetza:** Garapenean lan eta diru asko inbertitu ondoren, kompetentzia norbere lanaz ezin daiteke baliatu.

**Hardwarearekin bateragarritasuna:** Edozein hardware erabili daiteke Windows moduko sistema eragile batekin.



**Kalitate hobea:** Software libreari abantaila ateratzeko, kalitate hobea izan ohi du itxiak. Aplikazio onenak itxiak izaten dira.

**Babestugoa:** Pirateriaren aurkako neurri gehiago eta hobeak izaren ditu: DRMak esaterako.

**Produktuen bateraketa:** Garapen erabakiak jende gutxiagok hartzen dituzenez, oinarritzko ideia mantentzea errazagoa izaten da.

 <b>Softlan</b> analisisa & programazioa	Antonio Arrillaga, 1 Tel.: 943 74 81 05 info@softlan.biz  www.softlan.biz
---	---

 <b>MICRO SYSTEM INFORMATIKA</b>  Jose Maria Alcibar kalea, 12 <b>MUTRIKU</b>	info@elgonet.es Netto Merkatalgunea Tel.: 943 74 02 40 <b>ELGOIBAR</b>
---	---

 <b>ZAZPI INFORMATIKA</b>  zazpi@telefonica.net Pedro Muguruza, 8 behea Tel./Faxa: 943 74 37 87
---

 <b>On informatika</b> Salmena    Konponketa    Zerbitzu Teknikoa    Aholkularitza    Web Diseinua    Sareak  Sartu gure web orrian, edota etor zaitez gu ezagutzera!! www.oninformatika.com
--



## IRAKASLEARI azterketa

Laguntza gelako irakaslea

CARMEN ALLENDE



- 1 **Zergatik irakasle?**  
Gustuko nuelako eta lagun talde batekin joan nintzelako magisteritza ikastera. Jendearekin lan egitea gustuko dut.
- 2 **Irakasle izatearen alderik txarrena?**  
Irakasle, ikasle eta gurasoekin sortzen den inplikazioa. Batzutan arazo eta momentu txarrak sortzen dira.
- 3 **Eta onena?**  
Inplikazio horrek sortzen dituen harreman onak.
- 4 **Irakasle izateko behar diren ezaugarriak?**  
Umorea, alaitasuna eta umeei ikasteko gai direla transmititzen jakitea.
- 5 **Umetan, maitemindu al zinen zure irakasleren batekin?**  
8. mailan izan nuen irakasle gazte bat eta pozik joaten nintzen klasera.
- 6 **Ikasleren batek maite zaituela esango balizu?**  
Konfundituta dagoela esango nioke, ez nioke inportantziarik emango.
- 7 **Nola lortzen da ikasleen errespetua?**  
Beraiek errespetatuz eta bakoitzaren lekua zein den argi utzita.
- 8 **Irakasle ez bazina?**  
Erabat desberdina den zerbait; artista edo nekazaria... gauzak sortzeko

## NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



J. ANTONIO AGOTE *aita*

1. Faltan botatzen al duzu elurra?
2. Gustuko al duzu negua?
3. Zerk beldurtzen zaitu?
4. Tebistako saiirik gustukuena?
5. Aberatsa bazina?
6. Zein koloretakoa da zure logela?
7. 18 urte bazenu?
8. Reala ala Athletic?

1. Bai.
2. Bai, urtaro guztiak ditut gustuko.
3. Gauza gutxik beldurtzen naute.
4. "Los Serrano".
5. Munduan zehar bidaiatuko nuke.
6. Beige kolorekoa.
7. Ondo pasatu.
8. Reala.



ION AGOTE *semea*

1. Bai, eskiatzera joan ahal izateko.
2. Bai, elurretan jolastea gustatzen zait.
3. Iluntasunak.
4. "Cruz y Raya" eta "Doraemon".
5. Ez litzaidake aberatsa izatea gustatuko.
6. Zuria eta berdea.
7. Kotxeko gida baimena atera.
8. Reala.

## TXIKI inkesta

Zergatik ez du egiten elurrik?

**Paul Larios**  
5 urte

Ez duelako hotzik egiten.  
Elurra egiteko hotz egin behar du.



**Javier Castro**  
5 urte

Zerutik ez delako elurrik jausten.



**Alaitz Kortaberria**  
5 urte

Ez duelako euririk egiten.  
Elurra egiteko lehenengo euria egin behar du.



**Yuliana Martinez**  
5 urte

Bero egiten duelako,  
baina pixkanaka-pixkanaka hasiko da elurra.



2007-01-19

## LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna: .....

Izen abizenak: .....

Telefona: .....

**SARIA**

Elhuyar-ek eskainitako

"EUSKAL HERRIKO SOINU-TRESNAK"

CD-ROMa



**AURREKOA:**



Irabazlea: **Ez dago irabazlerik**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo  
posta elektronikoz bidali:

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



## AIZPEA GOENAGA

### «Antzerkia eta ekitaldi kulturalak egitea alperrik da, gero jendea joaten ez bada»

Telebista eta antzerki mundutik ezagutuko duzue gehienok Aizpea Goenaga. Orain, ordea, zuzendari bezala datorkigu Elgoibarrera. "Ama quiero ser lehendakari" antzezlana aurkeztuko digute gaur gauean Herriko Antzokian gaueko 22:15etik aurrea.



• Zein da "Ama quiero ser lehendakari" antzerkiaren ardatza?

Politikari buruzko antzerkia da. Oso txuria, ez dago umore garratzik edo mingaririk. Ganberrada bat da, barre egin eta ondo pasatzeko antzezlana. Zenbait herritan aurkeztu dugu dagoeneko, eta harrera oso ona izan du. Erritmo handiko obra da. Batzuk esan digute bi aldiz ikusi behar izan dutela detaile guztiekin jabetzeko eta bigarren aldia askoz gehiago disfrutatu dutela. Oso korala eta oso bizia da. Azpimarratzekoa da, bestalde, aktoreek daukaten maila. Oso aktore onak dira, profesionalak. Oso gustura egin dugu lan.

• Obra zeuk idatzitakoa da. Nondik sortu zitzaizun ideia?

Produktoreen enkarguz idatzitako obra bat da. Oso baldintzatuta idatzi nuen: politikari buruzkoa izan behar zuen obrak, txuria eta alde humanoa erakusten zuena, hau da, inor mintzen ez duen obra. Baldintza horiek derrigorrez bete behar nituen. Hori planteatu zidatenean, ezinezkoa zela uste nuen; politika munduan txuria izatea ez zela posible uste nuen, ez zuela graziaz izango. Erronka garrantzitsua izan da niretzat, eta lortu dudala uste dut.

• Zuzendari ala aktore moduan sentitzen zara hobeto?

Zuzentzea asko gustatzen zait, antzezlana honekin izugarri disfrutatu dut.



Dena dela, idaztea ere asko gustatzen zait eta antzezteza ere bai. Boladak izaten dira.

• **Aktore, idazle, zuzendari, gidoilari... nondik ateratzen duzu denbora?**

Lan egitea gustatzen zait. Lan asko egiten dut eta nire bizimodua honen inguruan mugitzen da. Zoritxarrez, lagunekin egoteko denbora gutxi daukat.

• **“Zeru horiek” filma ere zuzendu zenuen. Antzerkia ala zinema nahiago?**

Gauza bakoitzak berea du. Eztingo nuke bat aukeratu. Orain buruan hurrengo pelikula daukat. Tartean antzerkia egin dut, baina TVEk ekoiztuko dituen beste bi film dauzkat eskuartean.

• **Zine edo antzerki munduan euskaraz lan egiteko ausarta izan behar al da?**

Pixat bai. Euskarak asko mugatzen du publikoa. Bere garaian antzezlan bat euskarara hutsean egitearen aldeko apustua egin genuen, eta izugarri kostatu zitzaigun. Ez ziguten dirulaguntzarik eman komertzialtasunaren aitzakiarekin. Mingarria da honelakoak entzutea, ez dago eskubiderik.

• **Zein da euskararen errealitatea mundu honetan?**

Zineman negargarria, egoera oso beltza da. Badirudi hasi direla orain inportantzia apur bat ematen, politikoak konturatu dira audiobisualek duten garrantziaz, eta ematen du bultzada apur bat ematen hasi direla. Aspektu honetan, nik neuk autokritika bat ere egiten dut, izan ere, gauzak ez ditu lortzen gehien merezi duenak, baizik eta, borroka gehien egiten duenak. Alde horretatik, gure mediokoek borroka gutxi egin dugula iruditzen zait, erraz konformatu garelako uste dut. Beldurra ematen du askotan protesta egiteak, protestatzen badugu ateak itxiko zaizkigula uste dugu, eta hala da, ate batzuk isten dira, baina ez denak. Normala da azken finean, aktoreak eta teknikoak Madrilera joatea.

Euskarak antzerkian beste errealitate bat dauka. Produktoreek eta aktoreek hartzen dute arriskurik handiena. Beste komunitate batean egongo bagina, erdera hutsean egingo genuke, eta kitto! Hemengo errealitatean bi hizkuntza daude, eta hori oso neketsua da. Guregain hartzen dugun zama astuna da. Gainera, uste dut publikoa ez dela konturatzen egiten dugun



Aizpea Goenaga eta Nagore Aranburu “Zeru horiek” filmako gidoia errepasatzen.

## «Euskararen errealitatea zineman negargarria da»

ahaleginaz. Neurri batean desinflatzen ari gara ahalegin hori, hau da, jendeak hizkuntza bakarrean egiten dituzten montajeak.

• **Zu lanean hasi zinenetik hona aldatu al da egoera?**

30 urte inguru daramatzat lan honetan, eta noski egoera aldatu dela, gauza batzuk hobera eta beste batzuk txarrera. Hasierako egoerak ez dauka egungoarekin zerikusirik. Tebistak gaur egun aukera handiak eskaintzen ditu. Lehen aktoreek beste miseri bat pasatzen zuten. Horrek ez du esan nahi orain miseriarik ez dagoenik. Nik uste dut antzerkiak sortzen duen izpiritu-galdu egin dela, kontsumoaren gurrpilean sartu gara. Debate sakona dago hor.

• **Aktore lanetan hasi aurretik magisteritza egin zenuen, ezta?**

Bai, baina nik ez nuen irakasle izan nahi. 17 urterekin antzerki amateurra egiten nuen baina gurasoek ez zidaten uzten aktore izaten. Zuzenbidea ikasten hasi nintzen, baina ez zitzaidan batere gustatzen, orduan, karrera motz bat aukeratu nuen. Nota oso onak ateratu nituen eta bukatu

bezain pronto, Madrilera joan nintzen. Arte dramatikoak ikasi, Ipurbeltz aldirikako zuzendari ere izan nintzen, New Yorkera ere joan nintzen... gauza asko egin ditut.

• **Epe laburrera dituzun planak?**

Oraintxe bertan “Zorion perfektua” nobela egokitu dut telebistarako, Ramon Sainzarbitoriaren “Bihotz bi” liburuaren bertsio bat ere egin dut eta bigarrena prestatzen hasiko naiz eta neuk zuzenduko dut. Bestalde, “Ama quiero ser lehenakari” antzerkiarekin aurrera eta atzera jarraituko dugu.

• **Animatu elgoibartarrak gaur gauean antzerkira joateko.**

Antzerkia eta ekitaldi kulturalak egitea alperrik da, jendea joaten ez bada. Batzutan etxetik ateratzeak pereza ematen du, baina antzerkira joateak giro sozial berezia sortzen du, sofan botata egoteak sortzen ez duena. Oso ona da kanpora atera eta gauzak jende gehiagorekin ikustea eta konpartitzea. Antzerkiak hori ematen du eta horregatik irau du gaur egunera arte.

## "Sabel dantza ikastaroa" Olaizaga Kiroldegian

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Sabel Dantza ikastaroa antolatu du. Otsailaren 2an hasi eta martxoaren 30era arte iraungo du ikastaroak. Saiok ostiraletan, (20:00-22:00) izango dira. Bazkideentzat 60 euro eta bazkide ez direnentzat 66 euro. Izen ematea, Kiroldegian.

## Helduen Irakaskuntza Eskolako matrikula zabalik

Helduen Irakaskuntza Eskolan 2. lauhilabeterako matrikula epea irekita dago. Interesatuak urtarilaren 26ra arte eman dezakete izena Pedro Muguruza Ikastetxean (16:00-20:00). Informazioa 943740880 zenbakian.

## Santa Ageda eskean

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak, heritarrei baseriz-baserri kantuan eta eskean ateratzeko gonbitea luzatu nahi die, otsailaren 4an, goizeko 09:30ean Plazan elkartu eta iluntzeko 20:30ak arte. Bazkaria eta afaria Elgoibarko Izarraren kontu izango da. Animatzen zaretenok, hilaren 26rako izena eman 943741626an edo imanol@elgoibarkoizarra.com helbidean.

## MUSIKA

# Napoka Iria bikotearen maketa kalean da



**N**apoka Iria musikari bikoteak bere aurreneko maketa plazaratu zuen pasa den ostiralean. Taldea, Ander Mujika elgoibartarrak (kitarra) eta Miren Narbaiza eibartarrak (ahotsa) osatzen dute. Duela bi urte inguru sortu zuten biko artistikoa. Maketa akustikoa da, kanta autore ikutua duena eta rockerako joerarekin. Diskan, guztira sei abesti aurki ditzakegu (Kea, Kalean, Egun denak, Inoiz, Ezin baitu eta Ingorua).

Maketa honen 500 ale atera dituzten arren, 300 ale jarri dituzte salgai. Diska Elgoibarko Iratxo tabeman salgai dago, 5 eurotan.

Orain artean, jendearen erantzuna ona izan dela eta gustura daudela aitortu digu Anderrek. Atzo bertan, Bilbaoko San Inazio auzoko "Kabia" tabeman eskaini zuten kontzertua eta gaur gabean, 22:15ean Elgoibarko Gaztetxean entzun ahal izango ditugu.

**LANTANEA**

**Pintxoetan** dukera zabalik

13, Muguruza, 7    Tel: 943 74 16 76

**Lanbroa**

**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbina-**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera  
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5    Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

64. NAZIOARTEKO MUGERZA KROSA

**Sileshi Sihinek erraz lortu zuen garaipena**

**N**azioarteko Juan Mugerza krosek 64. edizioa, zinez, arrakastatsua izan zen, bai korrikalariak eskaini zuten ikuskizunagatik, bai Mintxetara gerturatu zen jendetzagatik.

Aurreikuspen guztiak iradokitzen zuten bezala, Sihine eta Tufa etiopiarrek izan ziren Juan Mugerza krosek irabazleak. Sileshi Sihine etiopiarrek aise irabazi zuen lasterketa, 31:08ko denbora eginaz. Chema Martinez madrildarrak, eta De la Osa korrikalariak ere, larteketa bikaina burutu zuten, sailkapen orokorreko 2. eta 3. postuak lortuz, hurrenez hurren. Emakumezkoen dagokionez, Mestawest Tufak, garaitu zuen lasterketa eta gertutik Bezunesh Bekele herrikideak jarraitu zion, 2. postua eskuratuz. Jessica Augusto portugaldarrak mendean hartu zuen Aninko Kalovics hungariarra, eta 3. postuan sailkatu zen. Junior mailan, bestalde, Mohamed Elbendir eta Katie Knowles nagusitu ziren. Euskaldunen artean, helmugara lehendabizikoak iristen, Hassain Kaanache gazte oriotarra eta Iratxe Aranburu zauratza izan ziren. Guzti honi, gainerako maila guztietan jokatutako proben maila



altua erantsi behar zaio. Azken orduko Kifle eta Machariyang atleten faltak ere nabarmentzekoak diren arren, osteratzean, kirol jardunaldi paregabeaz gozatze-ko aukera eduki zuten Mintxetara gerturatu ziren guztiak.

Antolatzaileen arabera, aurten 3.750 ikusle inguru egon ziren Mintxetan, iaz

baino gehiago, pasa den urtean, 3.000 persona hurbildu baitziren Mintxetara. Honenbestez, antolatzaileek, datorren urtera begira, nahiko lan izango dute, aurtengo mailari eusteko eta zeresanik ez hobetzeko. Baina, ziur aski, egindako lan eta ahaleginak bere fruituak emango ditu hurrengo urtean ere.



## SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAKO FINALA

### Loiola eta Atxotegi finaletik kanpo geratu dira

**S**an Anton Pilota txapelketako finalak, bihar, zapatua, jokatuko dira Ikastolako frontoian, arratsaldeko 17:30etik aurrera. Lagunak pilota taldeak ez du ordezkariarik edukiko final hauetan. Senior mailako final aurrekoetan, Atxotegi plaentxiarra finaletatik kanpo geratu zen lurretarekin batera, Alvaro eta Merinoren aurka, 22 -15 galdu ostean. Iragan den barixakuan, berriz, Eneko Loiola elgoibartarraren finalera igarotzeko aukera guztiak bertan behera geratu ziren, 22 -15 galdu ostean, Gonzalez eta Iza-ren kontra.

Honenbestez, bihar, buruz buru indarrak neurtuko dituzten pilotariak, honakoak izango dira: promesen mailan, Ioldi eta Beroizek osaturiko bikoteak, Gorka eta Linzoain pilotariak izango dituzte aurkari. Nagusien mailan, bestalde, Gonzalez eta Iza, Alvaro eta Merinoren aurka arituko dira.



### Lau elgoibartar Euskal Selektzioarekin Espainiako eskubaloi txapelketan

Espainiako infantil mailako Eskubaloi txapelketan, nesken Euskadiko selektzioak, hirugarren postuan sailkatzea lortu zuen. Kadete mutilen kategorian, berriz, Euskadiko selektzioak 9. postua lortu zuen.

Euskadiko infantil nesken selektzioan, Sanloko Olalsa taldeko hiru elgoibartar aritu ziren jokatzen, urtamilaren 4tik 8ra bitartean Vigon: Maite Bollar (10 zenb.), Ane Urain (14 zenb.) eta Aintzane Arizmendi (3 zenb.). Kadete mutilen selektzioan, bestalde, Sergio Agirregomezkorta Tecnomecako jokalaria.



**karkizano**  
San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49



**CORDON  
VILARCHAO**

San Roke, 7 behea  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa  
Tel. 943 740 570

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zoluen kolokazioa  
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.  
Pintura orokorra



## MENDIA

# Urto, Arano eta Arranbidera mendi irteera antolatu du Morkaikok



**M**orkaiko mendizale elkarteak, 2007ko aurreneko mendi irteera antolatu du, urtarrilak 28, domekarako. Lehen ibilaldi honetan parte hartzen dutenek, Urumea tarteko mendi lerroa zeharkatuko dute. Urtoke portutik emango zaio hasiera ibilaldiari. Eguneko lehen pausok, Leitzarain ibaia lagun dutela burutuko dituzte Plazaolaraino. Hemendik gorantz, abiatuko dira mendizaleak eta mendi gaina hartu ostean, ia egun guztian gainez gain joango dira. Bide osoan bista ederrak bidelagun izango dituzte, ezker aldean, Leitzarain bailara eta Aralar utziz eta

eskuin aldean, Urumea bailara eta Iparraldeko mendiak. Parean berriz, Donostia, Pasaia eta Aiako harriak. Urepel eta Mandoegi gainen alboetik pasa ondoren, itsasoa ikusten den Nafarroako herri bakarrera helduko dira, Aranora. Hemendik, behera segiz Arranbidera iritsiko dira. Guztira 18 km-tako ibilbidea izango da. Irteera, Plaza Handian izango da goizeko 8:00etan. Izena emateko, Morkaiko M.E. ko egoitzara jo, astelehen eta ostegunetan (19:00-20:30). Irteeraren prezioa, bazkideentzat 7 euro izango dira eta bazkide ez direnentzat 10 euro.

## 4.990 gramoko lupina harrapatu zuen Igor Lasuenek Deban



Begira zelako lupina harrapatu zuen Igor Lasuenek Gabonetan! La bost kilo pisatzen zituen lupina izugarria arrantzatzen zuen Deban. 4.990 gramo pisatzen zituen arrain hau uretatik ateratzeko ordu erdi inguru behar izan zuela kontatu digu. Pazientzia handia eskatzen duen kirola da arrantza, baina batzutan emaitza bikainak ematen ditu. Hurrengo egunetan, La Union Elkarteko protagonista izan zen lupina hau, denak aho zabalik begiratzen zioten. Igor eta bere lagunek afari bikaina egin zuten.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

UPV 1 - Haundi 2  
Elgoibar 2 - Irintxa 1 (1. erreg.)  
Elgoibar 1 - Anaitasuna 0 (Jub.)  
Intxurre 1 - Elgoibar 0 (Kad.)  
Elgoibar 2 - Touring 0 (O. Inf.)  
Real Union 1- Elgoibar 2 (Inf. txik)

### ARETO FUTBOLA

Kanikas Intracom 6 - Kenci 9 (Euskal Liga)  
Kenci 4 - Tecnun 4 (2mailagipuzk.)  
Relojes Mondaine 5 - Anoetako Gazte  
Asanblada 1 (Jub.)  
Elgoigar 4 - Goierri 5 (Jub.)

### ESKU PILOTA

Ildi / Beraiz 22 - Andreu / Diaz 16 (promesak)  
Gonzalez / Iza 22 - Baez II / Loiola 15 (nagusiak)

### ESKUBALOIA

Tecnifuelle 36 - Zarautz 21 (Senior mut.)  
Lojantzi 22 - Basauri 19 (Senior. nesk.)  
Bidaxoa 31 - Pneumax 11 (Jub. mut.)  
Bidaxoa 26 - Tecnomec A 27 (Kad. mut.)  
Aiala B 20 - Cometel 21 (Jub. nesk.)  
Usurbil 31 - IMH 22 (Kad. nesk.)  
Arrate 5 - Olalsa 22 (Inf. nesk.)  
Pulpo 22 - H Txariduna 19 (Inf. mut.)  
Aterpe 11 - Aiala C 15 (Inf. nesk.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA

Mintxetan  
**Domekia, 21**  
10:30 Elgoibar - Urki (nesk.)  
12:30 Elgoibar - Amara Berri (Kad.)

### ESKUBALOIA

Kiroldegian  
**Zapatua, 20**  
17:30 Tecnomec A - Pulpo (Kad. mut.)  
19:00 Pneumax - Pulpo (Jub. mut.)  
**Domekia, 21**  
11:00 IMH - Arrate (Kad. nesk.)  
12:30 Cometel - Jauja (Jub. nesk.)

### ESKU PILOTA

Ikastolako frontoian  
**Zapatua, 20 (San Anton Filana)**  
17:30 Ildi / Beraiz - Gorka / Linzoin (promesak)  
Gonzalez / Iza - Alvaro / Merino (nagusiak)

### ARETO FUTBOLA

Kiroldegian  
**Zapatua, 20**  
16:00 Kenci - Eskoriatza (Euskal Liga)

## Mendi irteera

Elgoibarko Ikastolak domeka honetarako, urtarrilak 21, Itziarko Andutz mendira irteera antolatu du. Mendi honek 610 metroko altuera du. Irteera ordua, goizeko 10:00etan izango da Ikastolatik.

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- ▶ Jacan 50m2ko atikoa salgai. Urbanizazioan 2 igerileku. 2 logela, tximinia, aire egokitua. Hegoaldera begira. Garaje eta trastelekua. 230.000 euro. **630365025**
- ▶ Etxea salgai Pedro Muguruzan. 100m<sup>2</sup>. Bizitzera sartzeko moduan. Iggogailua eta ganbara. **615796592**
- ▶ Pisua salgai Altzolan. 2 logela, sukalde, komuna eta egongela. Kanpoko aldean lursail txiki bat. Sartzeko moduan. Merkea. **619812448**
- ▶ Etxea salgai Erretxindin. 3 logela, egongela, jangela, komuna, trastelekua, 2 igogailu. Berritua. **680707639**

- ▶ Pisua salgai Verin-en (Galizia). Castilla Etorbidea, San Roke taberna ondoan. 3 logela, saloia, sukalde, 2 bainugela, ganbara. Prezio onean. Jantzita. Iggogailua eta bergogailua. **666701846 (Maria)**
- ▶ Etxea salgai Basarten. 2 logela, 2 komun, egongela, sukalde eta garajea. Iggogailua. **635204219**

### ALOKAIRUA

- ▶ Gasteizen 2 logela alokatzen ditut. Erdialdean. **699099249**
- ▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **943530331**
- ▶ Bi lagunentzako etxea hartuko nuke alokairuan. 400 edo 450 euro ordaintzeko prest. **943530631**
- ▶ Logela bat alokatzen dut. **635206436**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- ▶ Garaje marraduna alokatzen dut. **615787857 (Arratsaldez)**
- ▶ Garajea alokatzen dut kiroldegi aurrean. 60 euro. **680632339 (Arratsaldez)**
- ▶ Garaje marraduna alokatzen da San Roke kalean. **943741436**
- ▶ Lokal txikia alokatzen da. 18 urte-tik gorakoentzat. **667838858**
- ▶ Garaje itxia alokatzen da Mendaron, Garagartzan. Berritua. 65 euro hilean. **653709955**
- ▶ Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean. **943744398/943740070**
- ▶ Garaje itxia alokatzen dut Madalan. **636097290**
- ▶ Garaje itxia alokatzen dut Urсандin. Bi solairukoa. **943740434**

## [ AUTOAK ]

- ▶ Fiat diesel auto berria salgai. Txuria. 150 km. **667060911/943743120**
- ▶ Ford K autoa salgai. **629759316**

## [ BESTELAKOAK ]

- ▶ Haritz egurrean eginiko kutxa salgai. 60x90x1,95. **618854667**
- ▶ Estaldua elektrolitikoan (urrea, zilarra, nikel, letoia...) enpresa baten %50a saltzen da. 36.000 euro. **626346135**
- ▶ Sozietate gastronomiko batetako bazkide postua saltzen dut. **626346135**
- ▶ Ordenadore pantaila, inpresora eta teklatura salgai. Modu onean. **628598359**
- ▶ Compaq Presario ordenagailu portatil amerikarra salgai. 15,4" pantaila, 512MB, RAM 40GB diskoa, DVD-ROM/CD-RW. 6 hilabete. 450 euro. **650344428 (Ibon)**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Astezken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Gizon gaztea peoi, igeltsero, arotz laguntzaile... moduan lan egiteko prest. **646816360 (Joselo)**
- Mutila lanerako prest. **695721080**
- Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia daukat. **630631839**
- 1. eta 2. hezkuntzako klase partikularrak ematen dira. **943531054**
- Igeltseroa lanerako prest. **627784494**
- Emakumea garbiketa lanak edo sukaldari lanerako prest. Euskaraz dakit. **650014300**
- Emakumea umeak zaindu, garbiketa lanak... egiteko prest. **943531309**
- Neska umeak zaintzeko prest. **669223527**
- Emakumea larunbatetan portakal garbitzeko prest. **669223527**
- Emakumea lanerako prest. **639020180**
- Emakumea etxeko lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Asteburuetan. **664775970**

- Emakumea lanerako prest. **647400572**
- Gizona lanerako prest. **943530132 (Gabino)**
- Bi emakume lanerako prest. **943033601**
- Mutil gaztea asteburuetan lan egiteko prest. **627104915**
- Emakumea lanerako prest. **610632782**
- Gizona eliktrizista lanerako prest. **943530132**
- Emakumea eta gizona lanerako prest. **626416367**
- Mutila igeltsero edo txofer lanerako prest. **664576697**
- Emakumea lanerako prest. **699813826**
- Emakumea lanerako prest. **610396965**
- Emakumea etxeko lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest. **943530803**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Astean 3 egun. **666701846 (Maria)**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu, tabeman lan egiteko prest. **699576107**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut etxeetan. **606733850**

- Neska nagusiak zaintzeko prest. Interna moduan. **663572424 (Xiomara)**
- Esperientziadun estetizista lanerako prest. **696794107**
- Emakumea lanerako prest. **646832693**

### ESKAINNTZA

- Sukaldaria behar da asteburuetarako. **943531035**
- Mendaron emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Orduka. **943033707**
- Harategirako mutil euskalduna behar da. **943742048**
- Jatetxerako kamarera eta sukaldari laguntzailea behar dira. **943121262**
- Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. **647416313**
- Bitxiak, barruko eropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. **607824892**
- Esperientziadun kamareroa behar da. Asteburuetan jai. **636015707**
- Pertsona euskalduna behar da tabernarako. Astean zehar eta asteburuak txandaka. **943742897**

- Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. **637753755**
- Neska euskalduna behar da tabernarako. **670654921**
- Asteburuetan tabeman lan egiteko kamareroak behar dira. **670250429**
- 35 urte bitarteko emakumea behar da goizez jantziadun lan egiteko. Esperientziaduna. **676899604 (goizez)**
- Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. **943744582 (20:00-21:00)**

### ABISUAK

- Abenduaren 30ean kanarioak ihes egin zidan Pedro Migel Urruzuno kalean. Saritu egingo da. **943740122**
- 4 urteko alemaniar artzai txakur meua eta 3 hilabeteko euskal artzai txakur arra oparitzen dira. Pedigreearekin. Oso mantsoa. **696263512**
- Urrezko eraztuna galdu nuen abenduaren 24an. Amatista bat eta brillante txikiak ditu alde bietara. **943740937**
- Sofa zaharrak hartuko genituzke. **659769721**

## [ ZORIONAK ]



▶ Zorionak **Leire** gaur 11 urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Aiala** urtamilaren 14an 2 urte egin zenituelako. Aner eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Markel**, potxolo, igandean 3 urte egingo dituzulako. Txokolate goxogoxoa jango dugu. Aitatxo, amatxo eta familiakoak.



▶ Zorionak **Mikel** urtamilaren 23an 4 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Ibon** astelehenean 11 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



▶ Zorionak **Aritz** zure 1. urtebetetzean. Etxekoen eta bereziki, anaia Kimetzen partez.

▶ Zorionak **Aritz** zure 1.



▶ Zorionak **Ainhoa** bihar 11 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Anderren partez, muxu handi bat.



▶ Zorionak **Irigo** hilaren 12an 9 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



▶ Zorionak **Saral** Hilaren 22an 3 kandela itzaltzeko prest? Segi orain arte bezain kantari.



▶ Zorionak aitaitxa **Rafael!** Egun ona pasa!



▶ Zorionak **Txaber eta Iurgi** 12 eta 5 urte egin dituzuelako. Maite zaituztegu. Gurasoak.



▶ Gure bikote maitea! Dagoeneko 9 urte! Zuek zareten bezalako egun berezia izan dezazuela. Milioi bat muxu.

BARREN astekaria banatzeko

## BANATZAILEAK BEHAR DIRA

Ostiraletan BARREN astekaria Elgoibarko etxeetan banatzeko jendea behar da.

Interesatuok pasatu BARREN astekaritik (Nafarroa Plaza, 2) edo deitu 943 74 41 12 telefonora.

## [ OKINDEGIA ]



21. igandea FOTERO



## [ FARMAZIAK ]

19	<b>GUARDIA</b> 24 ORDUZ
20	Zabaleta
21	Etxeberría (Errosario)
22	Etxeberría (Errosario)
23	Ibañez
24	Bidasolo
25	Etxeberría (Santa Ana)
26	Fernandez
	Yudego

\* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

### KANPOKO FARMAZIAK

**IBAÑEZ**  
Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

### FERNANDEZ

Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

### ZABALETA

Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84



## [ TELEFONOAK ]

### OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

### UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hirigintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Hazierna	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 32 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98
Bizkaibus	902 222 265

### BESTELAKOAK

BARREN astekaria	943 74 41 12
Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

### IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31



## [ AUTOBUSAK ]

### ELGOIBAR - DONOSTIA (UZTAILA)

**Astegunak:**  
7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00,  
15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00,  
20:45

### Larunbatak:

7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10,  
18:45, 20:00

### Igandeak eta jaiegunak:

9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00,  
20:45

**Pesa: 902 10 12 10**

### DONOSTIA - ELGOIBAR (UZTAILA)

**Astegunak:**  
7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30,  
15:00, 17:30, 19:30, 20:45.

### Larunbatak:

8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,  
19:30, 20:45

### Igandeak eta jaiegunak:

12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

**PESA: 902 10 12 10**

### ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

**Astegunak:**  
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45..  
ordu erdika. Azkena; 20:45.

### Asteburuak eta jaiegunak:

7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.

**EUSKOTREN: 902 543 210**

### MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

**Astegunak:**  
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena  
21:55.

### Asteburuak eta jaiegunak:

7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

**EUSKOTREN: 902 543 210**

### LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

**EUSKOTREN: 902 543 210**

### ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

### DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

### ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

### EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 19 BARIXAKUA ]

**22:15 "AMA QUIERO SER LEHENDAKARI" ANTZERKI EMANALDIA**

Herriko Antzokian.

**22:15 NAPOKA IRIAREN KONTZERTUA**

Gaztetxean.

## [ 20 ZAPATUA ]

**12:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA HERRIKO DULTZAINEROekin**  
(San Anton jaien baitan).

**17:30 SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK**

Ikastolako frontoian.

Antolatzailea: Lagunak taldea.

**18:00 BOLO TXAPELKETA SAN ROKEN**

**20:30 AFARIA** (Nahi duenaretzat)

Menua: Berakatz sopa

Txuleta letxugarekin

Mazedonia berezia

Kafea, kopa

# SINOPSISIAK

## «The Holiday»





## [ 21 DOMEKIA ]

### 10:00 MENDI IRTEERA ITZIARKO ANDUTZ MENDIRA

Irteera: Ikastolatik.  
Antolatzailea: Elgoibarko Ikastola.

## [ 22 ASTELEHENA ]

### SAN BIZENTE EGUNA

### 11:00 MEZA SANTUA (San Rokeko ermitan).

Ondoren, taloa eta txorizoa egongo da nahi duenarentzat.

### 09:00-11:00 edo 16:00-18:00

### INTERNETEKO OINARRIZKO

IKASTAROA (16 urtetik gorakoentzat, otsailaren 2ra arte).  
KZgunean

## [ 24 EGUAZTENA ]

### 14:00 - 16:00 SEGURTASUN INFORMATIKOARI BURUZKO IKASTAROA

Merkatari eta mikroenpresentzat. (Urtarrilaren 26ra arte).  
KZgunean

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

#### «The Holiday»

20, zapatua: 19:30-22:15  
21, domekia: 19:30-22:15  
22, astelehena: 21:30

#### «Ratónpolis»

21, domekia: 16:30

### EIBAR, UNZAGA

#### «Rocky Balboa»

19, barixakua: 19:30-22:15  
20, zapatua: 19:30-22:15  
21, domekia: 19:30-22:15  
22, astelehena: 19:30-22:15  
23, martitzena: 19:30-22:15  
24, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, UNZAGA

#### «Arthur y los minimóys»

20, zapatua: 17:00  
21, domekia: 17:00

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

## «Ratónpolis»

Zuzendaria: Nanci Meyersus.

Antzezleak: Cameron Diaz, Kate Winslet, Jude Law, Amanda Woods, Kalifornian bizi da eta Iris Simpkins resuma Batuan. Bi emakume hauek elkarrengatik urrun bizi diren arren, beren bizitzak puntu bereira iritsiko dira. Biak beren bikotekideak utzi dituzte. Orreala, etxeen elkartrukera dedikatzen den web gure bati esker, Amanda eta Irisek beren bizi lekuak aldatuko dituzte denboraldi batez. Bi emakumeak, onorengoaz jabetuko dira: bizitzako bidaiarik onak, dena atzean uzten denean, burutzen diren hoberak direla.



Zuzendaria: David Bowers eta Sam Fell.

Antzezleak: Hugh Jackman/Fele Martínez (Roddy), Kate Winslet/María Esteve (Rita)

Roddy, etxe batean eroso bizi den xagu bat da. Egun batean, estolda batetik ateratako Sid izeneko arratoiarekin aurkitzen da etxeko sukaldean. Roddy xagua, Sid arratoia bidaltzeko modua pentsatzen dabilela, komunitetik behera erori eta lur azpiko mundura iristen da. Hemen, Rita izeneko xagu bat ezgutzen du misio berezi bat duena. Roddyk bere etxera itzultzea nahi badu, animalia karraskariak begiko ez dituen Sapo maltzuraren hatzaparretatik ihes egin behako du.

# Atzera hegira



**1969** urte inguruko erretratu zahar hau **heritar batek** laga digu. Elgoibarko San Bartolome jaietan ateratako argazkia da. Mutil koadrila hau Plaza Handian bildu zen, eta frontoian atera zuten erretratu. Ikusten den bezala, denak Che Guevararen kamisetarekin daude, badirudi iraultzaile sena zeukatela odolean. Gogora ditzagun zein diren gazte hauek: Goian, ezkerretik eskumara: **Joserra Esnaola, Rafa De la Cruz, Jose Manuel Atorrasagasti, Roberto Andonegi, Agustin Garagarza.** Bigarren ilaran: **Ina Perez "Negri", Jose Mari De la Cruz, Joseda Canales, Justo Iglesias ( ), Luis Azkue.** Beheko ilaran: **Koldo Aranburu, Jose Lodoso eta Jose Manuel Juaristi**



## II. URTEURRENA

2005eko urtarrilaren 22an, 75 urte zituela hil zen  
**Juanita Osoro Larrañaga**ren  
oroimenez urteurreneko meza izango da,  
larunbatean, hilak 20, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



## I. URTEURRENA

2006ko urtarrilaren 22an, 61 urte zituela hil zen  
**Guillermo Gorostiza Ibarra**ren  
oroimenez urteurreneko meza izango da,  
larunbatean, hilak 20, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





Mutua General de Seguros

**ASEGURU MOTA GUZ-**

Istripu aseguruak  
Istripuak errentarekin  
Gaixotasun aseguruak  
Auto aseguruak  
Etxe aseguruak

Aurrezte planak  
Jubilazio planak  
Bizitza aseguruak  
PYME aseguruak  
Denda aseguruak

Diru inbertsioak  
- "Vida fondo" (unit link)  
- Boltsa  
- Inberseguruak (kapital ziurtatuarekin)  
- PPA desgrabatzeko eta kapital ziurtatua

ELGOIBARKO DELEGAZIOAK URTERO  
BEZEROEN ARTEAN ZOZKETATZEN DUEN ETXEKO ZINEMA,

**JOSE ALBERTO GARATE**ri EGOKITU ZAIO

Jausoro plaza, 1 behea  
Tel: 943 74 26 99  
Faxa: 943 74 12 35  
E-posta: [mgs Luisa@euskalnet.net](mailto:mgs Luisa@euskalnet.net)

DELEGATUA: M. Luisa Urain Arakistain

# ZORIONAK!



# ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



## ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720  
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**

(San Andres pasealekutik)  
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



# SAIZAR

Sagardotegia  
Jatetxea

*Txotx denboraldi berria hasi dugu, zatoz!*

Kale-zahar Auzoa, 39

20.170

U S U R B I L  
G I P U Z K O A

Tel. 943 362 228

WWW.SIDRASSAIZAR.COM

